


Abendu aldia 2010

Zoaze eta kontatu
ikusitakoa! **BARRI ONA**



III Gida

Bihotza prestatu...

*Gure itxaropena alkartasun deitzen da,
jardunean, prozesuan, itxarotean...*

Itxaropena globaliatu... danek...

batez ere baztartuek...

gehien itxaron behar dabenek...

arrazoizko itxarotea izan dagien...

*Alkartasun globalizatuak egingo dau apurka-apurka
“itxaropen itxaropentsuaren” mirari hau, Ellacuria
martiriak esaten eban lez.*

(Pedro Casaldáliga)

*Atzo itxaropena etorkizunean finkatu
zan bitartean, aldaketa eta utopia, gaur
egun, alkartasunaren esparrura lekual-
datzen da, leku eta probidentzia barrie-
kin.*

(Joaquín García Roca)

Irakurri... ulertu...

Mt 11, 2-11

Zeu zara etortekoa ala beste baten zain egon behar dogu?...

Gaur jasotako berba nagusia BARRI ONA da, ebanjelioa da: *zoaze eta entzuten eta ikusten dozuezanon barri emon eiozue... Itsuek ikusi egiten dabe, herrenak badabiz, legenardunak garbi geratzen dira... eta BEHARTSUEI BARRI ONA IRAGARTEN JAKE...*

Barri hau Joan Bateatzailearen itaunaren ostean heltzen jaku. Atxilotuta, berak aldaketarako martxan jarri dauan misinoak porrot egin daualakoan, bakarrik... Jesusen erantzunak Joanen eta agintearen, txirotasunaren, baztarketaren... zapalketak larritutako jentearen bizitzari norabide barria emoten deutso.

Jaunaren erantzunak desengainua ekarri daike –eta, egia esan, horixe gertatu zan– proposamena ez dalako zapaltzea, inposatzea, parkatzea, berreskuratzea, sendatzea... Baino.

145 Salmoa ***“Bihozbarritze iraunkorra”***

Bizitza egitasmoak eta geroa eratzeko aukerea da; baina esperientziak dinoskunez, ezin gara larregi fio horreetaz. Otoitz zahar honek Jaungoikoari begiratzen deutsonaren jakinduriaz hitz egiten deusku. Holantxe egin eban otoitz Jesusek azkeneraino: Aita eban lagun bere misinoan.

Gaurkotu

Joanen sasoian lez, iluntasunez inguratuta gagozan arren, Jesus berera dan Jaungoikoaren barri ona entzuten eta onartzen dogunok bizitzako bidean argi egiten deuskun argia antzematen dogu. Ezagutzen dogu datorrena etorri zalako, gure artean dagoalako, nahiz eta bete-betean izan ez.

Eta behartsuei barri ona iragarten jake...

EUREK IKUSIKO DABE JAUNAREN EDERTASUNA,
esku makalak, belaun dardartiak, tristurazko jantziak...
daukezan gizon eta emakumeek.

Jesusek nire bizitzari norabide barria emoten deutso Joani lez?
Norengana zuzentzen nau?

Otoitz egin... begietsi...

GUZTIAK BARRIZTATU EGITEN DODAZ (Ap 21, 5)

Aste honetan, begiesteko, Jaungoikoaren, Jesusen Aitaren jardueraz jabetzeko... astia hartuko dot, gizakiengan, jardueretan eta Beragaz esango dot: *guztiak barriztatu egiten dodaz*

“JAUNGOIKOA BERA ETORRI ZAN... BADA-TOR...”

Zatoz bizkor, Jauna, agindu zeunskun lez!

Txarkeriaren indarra areagotu egin dala dirudi, bidegabekeria eta indarkeriak nagusi diralako, eta ez dirudi inor gelditzeko gauza danik.

Zatoz bizkor, Jauna!

Onbidea armetan ez ezik

eskeintzan dagoala erakusteko;

Gizakiaren bidea zuzentasuna eta askatasuna dala erakusteko.

Zatoz bizkor, Jauna!

Esaiguzu non bilatu behar dogun zure aurpegia, non babesak Zuri jarraitzeko, nogan jarri behar dogun itzaropena

Honan erantzuten deuskuzu:

BAI, LASTER NATOR!

ALELUIA! AMEN!